

Musikeneko ikasleek bost kontzertu emango dituzte Hamabostaldian

Astelehenean hasiko da Interprete Gazteen zikloa • Bi Musikeler emanaldi ere egingo dituzte

Andoni Imaz Donostia

Musika klasikoaren alorrean etorkizuna duten musikari gazteen lanari bultzada ematea da Musika Hamabostaldiaren helburuetako bat, eta funtzio hori betetzen du Interprete Gazteen zikloak. Musikene Goi Mailako Musika Ikastegiarekin elkarlanean antolatzen da zikloa, bertako ikasleen artean egindako aukeraketa prozesuaren emaitza baita bertako egitaraua. Musikeneko ikasleak protagonista izango dira zikloko bost kontzertuetan, abuztuaren 20tik, astelehenetik, 24ra bitarte. Lau kontzertu zikloaren ohiko egoitzan egingo dira, Miramar jauregian, eta bat Musikeneko auditoriumean, iaiztik Musika Hamabostaldiko agertoki bilakatu baita.

Miren Iñarga Musikeneko zuzendari akademikoak zikloaren garrantzia aldarrikatu du, aukera ematen baitu musikari gazteen lehen pausoak ikusteko, baina ez azkenak. Izan ere, Iñargak ikasle ohi ugari ikusi ditu Musika Hamabostaldiko gainontzeko zikloetako egitarauetan ere. Zikloak balio dezake entzule gazteak musika klasikora erakartzeko ere, ikasleek erreperitorio «eskuragarria» osatu baitute.

Ganbera musika izango da nagusi, baina bakarlarik ere ariko da. Bi boskote daude egitarauan: Morton eta Kahlo Ensemble; aurrenekoak zikloa irekiko du, eta bigarrenak, berriz, itxi. Soka lau-



Hainbat musikari gaztek beren errepertoria aurkeztu zuten atzo, Donostiako Kursalean. JUAN CARLOS RUIZ / FOKU

kote batek eta pianoak osatzen dute Morton, eta konpositore «ez oso ezagunen» lanak joko dituzte, Cesareo Muñoz biolontxelo jotzaileak aurkezpenean aurreratu duenez. Antolin Dvorak eta Erich Wolfgang Korngolden lan bana joko dute: 2. *kintettoa pianoarekin* eta *Kintettoa pianoarekin mi maiorrean*, hurrenez hurren.

Kahlo Ensemble taldeak eman- go du zikloko azken kontzertua, abuztuaren 24an. Lau sokak eta klarinete batek osatzen dute boskotea. Kinteto eta klarinete erreperitorioan garrantzitsuak diren

bi lan aurkeztuko dituzte: batetik, Mozarten *Stadler Kintettoa la maiorrean*, eta, bestetik, Brahmsen *Kintettoa si minorrean*.

Asteartean, bikote batek eskainiko du errezitela: Gonzalo Manglano tenorrek eta Daniel Huertas pianistak Franz Schuberten *Errortari ederra* joko dute. *Lieder*—piano eta ahotsarentzat egindako obra— egile emankorra izan zen Schubert, eta haren azken urteetako lanik ezagunenetako bat joko du bikoteak. Wilhelm Mullerrek idatzitako hogeit hamar poetik abiatu zen musikagilea.

Beste guztietatik ezberdina izango da Icaro duoen saioa: Manu Gaigne perkusio jotzaileak eta Adrian Carro saxofoi jotzaileak sorkuntza garaikidea landuko dute, XX. mende amaierakoa eta XXI. mende hasierakoa. «Musika klasiko bizirik dago», Gaigneren hitzetan, eta hori erakutsi nahi izan dute musika aukeraketan. Jose Manuel Lopez Lopez, Luis Naon, Andy Akiho eta Andres Martinen lanak joko dituzte, baita Pascal Gaigneren bi lan ere. Hainbat soinu banda egin ditu, eta Goya sarien azken edizioan

sari bat irabazi zuen *Handia* filmerako egindakoagatik.

Ostegunean, Ander Marzana bakarlarik kontzertu bat eman- go du pianoan. Musika tresnaren historian erreferentziazoak diren hiru egile bildu ditu horretarako: Beethoven, Chopin eta Ravel. Kontzertuaren lehen zatian,



Musika klasiko bizirik dago oraindik. Irudiekin eta elektronikarekin nahastuko dugu, jende gaztea erakartzeko»

Manu Gaigne
Icaro duoko kidea

Chopinen *Nokturnoa, 1. zk. op. 48* eta Beethovenen *Op. 53 sonata, Waldstein* joko ditu. Bigarren zatian, berriz, Ravelen *Balsambleak eta sentimentalak* lan delikatuak. Hiru maisuekin batera, Marzanak Xavier Montsalvatge musikagile katalana hautatu du, eta haren *Sonatina Yvetterentzat* lana joko du. «Piano teknikaren eta lengoia musikalaren eboluzioa» erakutsiko ditu horrela.

Klasikoa garagardo artean

Laugarren urtez, Musika Hamabostaldiak Musikeler gauak antolatuko ditu, entzule berriak garagardo baten bueltan musika klasikora erakartzeko asmoz. Aurten, Convent Gardenen egingo dira bi kontzertuak, Musikene sortutako bi talderen eskutik: Voz-ess (Daniel Huertas, Gonzalo Manglano, Jone Martinez) eta Bidaide (Manu Gaigne, Nora Lopez, Ane Urbizu, Itziar Vargas). Lehenengo taldeak operetarako eta zarzuelarako lanak joko ditu, eta bigarrenak askotariko musika tradizionalak eta jazzeko lan estandarrek tartekatuko ditu.

Egoki eta jator

Arkaitz Mendoza

Hamarkada oso bat bete da Judith Jauregi pianista donostiarrak Musika Hamabostaldian egin zuen estreinalditik. Interprete Gazteen zikloan entzuteko aukera izan genuen, nahiz eta bere talentua aski ezaguna izan, hiriko hainbat lehia-keta eta kontzertutatik. Oraingoan, ganbera musikara



KRITIKA
Ostegun Musikalak
San Telmon zikloa
Judith Jauregi
eta Lina Tur Bonet

Lekua: Donostiako San Telmo museoa. **Eguna:** Abuztuak 16.

zuzendutako San Telmo museo-ko ziklo garrantzitsuan aritu da donostiarra, eta berriz ere arrakasta lortu du, haren lanak kalitate handiko harribitxiak dituelako. Lina Tur Bonet biolinista du bidelagun. Plaza askotan iaioa da, eta, entzundakoa baloratuta, hobeto aritzen da musika barrokoaren espezializazioan; halere, irudia, presentzia eta erantzuna ikusita, heldutasun oparoko biolinista pisutsua da. Ez dut nolana adierazi pisuarena, errezitak guztian arkuak pisutsu eta gozotasun faltarekin erabili zuelako.

Tur Bonetek arazoak izan

zituena pianotik zetorren soinu biribileragatik Joaquin Turinaren *Euterpe*-an, Christoph Willibald Glucken *Orfeo eta Euridize* melodian nahiz Claude Debussyren *Sonata-ko Intermède* pasartean. Abiaduran eta arnasketetan fin aritu zen bikotea, baina musika esaldi bakoitzarekin egin beharreko tratamenduan ikuspegi ezberdinak nabari ziren taularen gainean. Biolinistak esaldikapen luzei mozketak gehiegi ziriztatu zizkien. Hala ere, emanaldi egokia eta jatorra izan zen orokorrean, eta entzuleen isiltasuna, goraiatzeko. Maurice Ravelen

Sonata-n askoz erosoago sentitua nuen biolina; solte, aske, eta, batez ere, baikor, dotorezia handiko soinuaren bila. Une bereziak pilatzen joan ziren, eta Manuel de Fallaren *Suite espainiarra*-n bikaintasunera iritsi zen elkar ulertzea *Nana* zein *Polo* abestietan. Judith Jauregiren pianoa harmonia liluragarri hornitutako estalkia izan zen biolina zerutar azal zedin. Emanaldiaren amaieran, bi oparixko: etxeko Aita Donostiaren *Batbatian* preludea, eta Jules Masseneten *Thaisen meditazioa* famatua. Gau polita, musika saio politago batentzat.